




2010_{eko}
MEMORIA

SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA◀






**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

**2010eko
MEMORIA**

Andoain, 2010eko abendua

**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA<**



Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain
Tel.: 943 592 556
kluster@soziolinguistika.org
www.soziolinguistika.org

ERAKUNDE BAZKIDEAK



EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta
Portaera Zientzien Metodologia Sailak



Udako Euskal Unibertsitatea



ELHUYAR Aholkularitza



AZTIKER Ikergunea



EMUN Kooperatiba



ARTEZ Euskara Zerbitzua



Eusko Ikaskuntza



EHU-UPVko Soziologia II Saila



Mondragon Unibertsitateko
Humanitate eta Hezkuntza
zientzietako Fakultatea



Topagunea.
Euskara Elkarleen Federazioa



Nafarroako Euskara Teknikarien
Lanbide Elkartea (NETeLE)



Tolosako Udala



Hernaniko Udala



Gipuzkoako Urtxintxa eskola



Euskaraz Kooperatiba
Elkartea (AEK)



Euskara Kultur Elkargoa



Gipuzkoa Donostia Kutxa



EHU-UPVko Hezkuntzaren
Teoria eta Historia Saila



Euskal Herriko
Ikastolak



Ebete



Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza
eta Gizarte Zientzien Fakultatea




Bermeoko Udala



BAI Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea




Erandioko Udala





Sar hitza	9
Soziolinguistika Klusterra: proiektuaren sorrera	11
Soziolinguistika Klusterraren osaketa eta antolaketa	12
Soziolinguistika Klusterraren misioa, bisioa eta balioak.....	14
Soziolinguistika Klusterraren mapa estrategikoa	15
Lankidetzak	16
PROIEKTUAK	17
IKERKETA-ARLOA	18
1) ARRUE proiektua (Eskola-giroko ikasleen hizkuntza-erabilera)	18
2) ALDAHITZ proiektua (Hizkuntza-ohituren aldaketa).....	18
3) ERALAN2 proiektua (Lan-arloko hizkuntza-erabilera).....	19
4) Gazteen erabilera: Faktoreen azterketa eta GPS-a.....	19
5) Ahozko hizkuntza-erabilera neurtzeko metodoak: bilketa, bateratzea eta laginaren kalkulua	20
6) Euskal Herriko Kaleetako Hizkuntza-erabileraren VI. Neurketa (prestaketa).....	20
7) Euskararen Kale Erabileraren Neurketak herrietan	21
8) EUSKAINI (euskarazko eskaintzari buruzko neurketak).....	21
EZAGUTZAREN DIBULGAZIOA.....	22
1) Hizkuntza-ekologiaren inguruko aholkularitza (Kutxaren Ekogunea).....	22
2) Formazio- eta aurkezpen-hitzaldiak.....	22
3) Bat Soziolinguistika Aldizkaria	23
4) Soziolinguistika eskuliburua	24
5) III. Euskal Soziolinguistika jardunaldia	25
6) Euskara komunikatu? Nor-nori-nork. Soziolinguistika ikastaroa EHU-ren udako ikastaroetan	26
7) Hausnartu. III. Soziolinguistika sariak.....	27
8) Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuen Argitalpena.....	28
KOMUNIKAZIOA eta sentsibilizazioa.....	29
1) Euskara sustatzeko Komunikazio-ekimenentzat oinarritzko gida-lerroak	29
2) Soziolinguistikaz berri paper elektronikoa.....	30
3) Soziolinguistika Klusterraren webgunea	31
4) Interneteko sare sozialetan presentzia: Twitter, Facebook	32
Soziolinguistika-arloko sarea eratzen	33





Atzera begiratzen dugunean, azken urteari gainbegiratu ematerakoan, azken-azken gertakari eta bizipenei erreparatu eta aurrekoen perspektiba galtzeko arriskua egoten da beti. Izan ere, bizi dugun abiadak berehalakotasunaren zurrunbiloan sartzen gaitu eta hilabete lehenagokoa zaharkituta uzten du. Ez da urte erraza izan 2010a, sentimendu kontrajarririk utzi ditu; urteetako lanak emandako sinesgarritasunaren fruituak jaso dira batetik, baina krisialdi ekonomikoaren eraginak ere zuzenean jasan ditugu, bestetik.

Urtearen errebasoari hasieratik ekingo diogu, beraz, hitz gutxitan 2010 urtea laburtuz.

Ametsak. Pertsonen osatutako edozein erakundek behar beharrezkoak izaten ditu ametsak, mugitzen gaituzten motorrak dira. Soziolinguistika Eskuliburua, urteetan ametsen artean kokatu izan dugun erronka, inprimatutako hizkietan gauzatua ikusi dugu aurten (sarean ere, Añamendi hiztegi entziklopedikoan). Ez da erraza izaten ametsak betetzen baina Klusterrean gustuko dugun modura lortu dugu, hainbat lagunen laguntza eta ekarpenarekin. Izan ere, lagun askoren ahalegin eta lanari esker soziolinguistikaren arloan ari garenontzako tresna ezinbestekoa osatu da.

Heldutasuna. Erakunde gaztea da oraindik Soziolinguistika Klusterra, baina urte hauek emandako eskarmentua handia da. Arrue edo Eralan moduko egitasmoek bide luzea eginga dute eta Klusterraren heldutasunaren ikur dira. Eralan egitasmoaren baitan 2010ean egindako esperientziak eta jardunaldiak ezin aipatu gabe utzi.

Zorroztasuna. Metodoa eta zorroztasuna izan dira Klusterrak urteotan izan dituen beste bi ezaugarri. Datorren urtean Euskal Herriko Kaleetako Hizkuntza-Erabilaren VI. Neurketa egingo da eta azken bi urteetan erabilera neurketak egiteko metodologiaren gainean egindako lanak oinarri sendoa eman du orain arteko neurketen balioa frogatu eta hurrengo neurketei heltzeko.

Hedapena. Dibulgazioa du helburu nagusien artean Soziolinguistika Klusterrak eta bide horretan nabarmentzekoak dira ikastaro eta era guztietako argitalpenak (tartean, nola ez, 20 urtez euskal soziolinguistikaren ikur izan den BAT aldizkaria). 2010eko apustua sare sozialena izan da. Ezagutza zabaltzea eta partekatzea, soziolinguistika arloan ari diren teknikari eta eragileekin harreman kanak berriak baliatzea, hurbiltasuna eta komunikazioa; nahikoa arrazoi dira sareko apustu honen alde egiteko.


Errekonozimendua. Azken urteetako lanaren emaitzak hainbat modutan jasotzen ari da Klusterra, baina nabarmentzekoa da errekonozimenduaren aldetik hartzen ari dena. Klusterrak gero eta ate gehiago zabalik ditu eta onarpena zein bere lanarekiko errespetua nabarmen hazi dela esan daiteke.

Aldaketa. Urtea zurrunbiloan bizi izan du, hala ere, Soziolinguistika Klusterrak. Hiru urtetarako hausnarketa estrategikoa bukatu berritan, egoera ekonomikoaren zamak eta lantaldean izandako aldaketek eragin nabarmena izan dute urteko jardueran.

Lantaldea. Klusterrak bere ibilbide osoan zehar izan duen aktiborik garrantzitsuenaren izan da lantaldea, baina aldaketa eta ziurgabetasun urteetan are nabarmenagoa da lantaldearen ekarpena. Suerte ikaragarria dugu Klusterreko bazkideok horrelako lantaldearekin kontaktatzen dugulako. Bereziki aipatu behar dira 2010 urtean lantaldean egondako aldaketak. Erakundea sortu zenetik kudeaketa lanetan gidari izan dugun Iker Salaberriak beste ardura batzuk hartu zituen urtearen hasieran eta, garai bertsuan, Oihana Lujanbiok tarte baterako beste langintza batzuei heldu zien. Klusterraren azken urteetako bilakaera ezin da ulertu bien ekarpenik gabe eta, suerteko gaude, oraindik ere hurbilean baititugu biak. Lantalde sendo eta jantzia du Klusterrak, urtean zehar indartu dena, eta hau da hurrengo urteetan erronka berriei heltzeko berme nagusietakoa.

Hauek dira 2010eko kontuak, hitz gutxitan laburtuak. Sakonago eta luzeago aztertuko ditugu hurrengo orrialdeetan.

Iker Martinez de Lagos
Soziolinguistika Klusterreko lehendakaria



Soziolinguistika Klusterra proiektuaren sorrera

Soziolinguistika klusterra sortzeko proiektua 2000ko azaroan egituratu zen “Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen” SIMPOSIUMeko erakunde antolatzaileek eginiko azterketaren. Bertan, ezagutza soziolinguistikoaren ikerketa- eta zabalpen-gune baten gabezia eta beharra jasotzen zen, Euskal Herrian hizkuntzaren normalizazio-prozesuan inplikaturik dauden erakundeei eta taldeei (pribatu, publiko zein gizarte-mailako) arlo zientifikotik eta aplikatutik laguntza eskaini eta beren jarduteko moduaren gaineko ezagutza eta beren emaitzak hobetzeko.

Geroztik, Soziolinguistika Klusterra sortzeko ahaleginean bat egin zuten hainbat eragilek. Hasieratik zeudenekin (NUP-UPNAko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea, UPV-EHUko Soziologia I eta II Sailak, Mondragon Unibertsitateko Humanitateak Fakultatea, Udako Euskal Unibertsitatea, Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea eta SEI Elkartea) bat egin zuten Elhuyar Aholkularitzak, Emun Kooperatibak, UPV-EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak eta Eusko Ikaskuntzak.

Horien artean, Klusterra sortzearen aldeko bidean, gaiaren inguruko eztabaidan sakontzen eta adostasunak bilatzen lan egin zuten: arloko eragileekin aurrez-aurreko bilerak eginez, eztabaidarako foroak antolatuz eta lankidetzarako hitzarmenak sinatuz (2001eko maiatzean «Soziolinguistika Institutua Klusterra»-ren aldeko Lankidetzaz-Protokoloa, 2001eko azaroan «SIKeraiki» Lan-Jardunaldia...).

Azkenik, 2004ko martxoaren 30ean Soziolinguistika Klusterraren eraketa batzarra egin zen Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean.

Harez geroztik, urtez urte sendotzen doan proiektua da Klusterra, bere funtzioa ahalik eta modu sendoenean bete nahi duena eta euskal eragileen artean kalitatezko zerbitzua eskaini nahi duena, bai maila teorikoan zein aplikazio praktikoetan aholkularitza behar dutenen artean ere.





Soziolinguistika Klusterraren osaketa eta antolaketa

Antolaketarako eredua: Klusterra

Soziolinguistika Klusterrak izaera ezberdina duten entitateak lotzen ditu elkarren artean. Horrela, interes partekatua duten entitateen, enpresen, eta instituzioen arteko taldekatzea lortzen da. Erakunde horien artean daude enpresak, administrazioak, hainbat kide, unibertsitateak, formazio-zentroak, eta bestelako elkarte profesionalak.

Klusterraren funtzioa da kooperazio-egiturak antolatuz ezagutzaren hedapenari bide egitea, eta berrikuntza sustatzea, horrek guztiak dagokion sektorearen garapenari positiboki eragin diezaion. Klusterrak sinergiak sortzen dituzte eta horregatik erakunde desberdinen artean eginiko proiektuek lehentasuna izan ohi dute.

Soziolinguistika Klusterraren osaketa

Lehen aipatu bezala, hainbat erakundek bat egin zuten Soziolinguistika Klusterra sortzeko beharrek. Batzuk hasieratik izan genituen erakundea sortzeko bultzatzaile eta beste batzuk, bidean egindako lanaren ondorioz elkartzen joan dira bazkide. Egun, 24 erakunde bazkide eta 100 norbanako ditugu. Jarraian duzue Soziolinguistika Klusterreko erakundeen zerrenda:

Bazkide Sustatzaileak

1. Elhuyar Zubize SLU
2. Emun Kooperatiba Elkarte
3. Eusko Ikaskuntza
4. HUHEZI Koop.E
5. Topagunea. Euskara Elkartearen Federazioa
6. Gipuzkoako Urtxintxa Eskola
7. ARTEZ Euskara Zerbitzua
8. AZTIKER Ikergunea
9. Euskaraz Kooperatiba Elkarte (AEK)
10. Gipuzkoa Donostia Kutxa
11. Udako Euskal Unibertsitatea

Bazkide Erabiltzaileak

1. EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak
2. EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila
3. EHU-UPVko Soziologia II saila
4. Euskara Kultur Elkargoa
5. Hernaniko Udala. Euskara Zerbitzua
6. Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarte (NETeLE)
7. Ebete elkarte
8. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa
9. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Gizarte Zientzien fakultatea
10. Bermeoko Udala
11. Tolosako Udala. Euskara Zerbitzua
12. Erandioko Udala
13. BAI Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte
- + 100 norbanako



Soziolinguistika Klusterraren antolaketa

Soziolinguistika Klusterrak hiru organo nagusi ditu. Batetik, Batzar Orokorra; bertan, aurreko urteko balantzea onartu eta urteko egitasmoa eztabaidatzeaz gain, zuzendaritzako kideak aukeratzen dira. Horrekin batera, hiru urtean behin Batzar Orokorreko kideek (bazkide guztiek) Soziolinguistika Klusterraren egitasmo estrategikoaren eraketan parte hartzeko aukera dute, horretarako berariaz antolatutako bileren bidez. Hain zuzen, 2009 urtean burutu zen 2009-2011 epealdiari dagokion egitasmoa zehazteko gogoeta. Dokumentu honetan, beraz, gogoeta horren zenbait emaitza ikus daiteke.

Bestetik, Zuzendaritza Batzordeak hausnarketa estrategikoan eta urteko kudeaketa-planean ezarritako helburuak betetzeko unean-unean erabakiak hartu eta beharrezko egokitzapenak egiten ditu.


2010ean ondorengo kideek parte hartu dute Zuzendaritza Batzordean:

- Iker Martinez de Lagos (Topagunea). Lehendakaria
- Jaime Altuna (Gipuzkoako Urtxintxa Eskola)
- Estiñe Astorkia (Artez Euskara Zerbitzua)
- Nekane Goikoetxea (HUHEZI – Mondragon Unibertsitatea)
- J. Inazio Marko (Eusko Ikaskuntza)
- Imanol Miner (Kutxa)
- Aitziber Sarasola, Mertxe Mujika (AEK)
- Joxan Oiz (UEU)
- Ainhoa Elices, Olatz Olaso (Emun Kooperatiba)
- Idoia Aldekoa, Aizpea Otaegi (Elhuyar Aholkularitza)
- Iker Salaberria, Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra). Idazkaria

Eta, jakina, proiektu eta jarduera desberdinen garapenez arduratzen da bulego teknikoa. 2010ean ondorengo teknikariak izan dira lanean Soziolinguistika Klusterrean:

- Olatz Altuna
- Asier Basurto
- Aitzol Elizaran
- Denis Elortza
- Isabel Godinez.
- Oihana Lujanbio
- Iker Salaberria
- Pablo Suberbiola
- Belen Uranga

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN ORGANIGRAMA





Soziolinguistika Klusterraren misioa, bisioa eta balioak

Aurrez azaldu bezala, 2009an Gogoeta Estrategia egin zuen Soziolinguistika Klusterrak. Gogoeta horretan ezarriak genituen misio, bisio eta balioak berraztertu ziren. Norabide aldaketa nabarmenik izan ez arren, atal horietan jasotako ideiak argitzeko eta zehatzago definitzeko ahalegina egin genuen. Jarraian doakizue emaitza.

Soziolinguistika Klusterraren misioa

Soziolinguistika Klusterra soziolinguistika eremuko eragileen klusterra da. Soziolinguistika Klusterraren misioa euskararen normalizaziorako soziolinguistika-ezagutza garatzea, zabaltzea eta horren inguruko interesa piztea da. Horretarako, baldintza egokiak sortuko ditu, esparru teoriko eta aplikatuaren arteko zubiak eraikiko ditu, eta arloko eragileekin hausnarketarako zein lankidetzarako bilgune-sareak osatuko ditu.

Bidea

- Euskararen normalizaziorako baliagarriak diren marko teorikoak garatzea.
- Marko teoriko eta aplikatuaren arteko zubiak eraikitzea.
- Euskararen egoeraren inguruko adierazle eta datuak eskuratzea.
- Ikerketak garatzea eta ikertu dadin bultzatzea.
- Informazio eta formazioa zabaltzea.
- Esperientzia eredugarriak biltzea eta zabaltzea.
- Soziolinguistikarekiko interesa lantzea.



Soziolinguistika Klusterraren bisioa

Soziolinguistika Klusterra euskararen soziolinguistika-arloan erreferente izango da lankidetzan garatutako proiektu berritzaileak, kalitatezkoak eta diziplinartekoak burutzeagatik. Horretarako, irizpide propioekin lan egingo du.

Soziolinguistika Klusterraren balioak

1. Euskararen hizkuntza-komunitatea bere osotasunean aintzat harturik jardutea.
2. Bazkideen interes eta proposamenetatik abiatuz, interes orokorreko proiektuak garatzea.
3. Bazkideen jardura errespetatzea eta indartzea, konkurrentzia saihestuz eta osagarritasunak bilatuz.
4. Komunikazioa egoki lantzea.
5. Proiektuetan kalitatea bermatzea.
6. Ekimen aplikatua arreta bereziz lantzea.
7. Bazkideei emaitza onuragarriak eta erabilgarriak eskaintzea.
8. Klusterrak bokazio publikoa duenez, gizarte-mailan bere emaitzak zabalduko ditu.
9. Klusterrak gizarte-erantzukizunez jokatu du.
10. Talde-lana, lankidetzak eta hurbiltasunezko harremana izango ditu oinarri.



Soziolinguistika Klusterra mapa estrategikoa


Soziolinguistika Klusterraren Egitasmo Estrategikoa diseinatzerakoan “Balanced Scorecard” edo Gida Panel Integralaren eredua jarraitu dugu, beti ere gurea bezalako erakunde baten ezaugarrietara egokitzuz.

Eredu horren arabera, abiapuntua aurreko atalean ikusi dugun ikuspegi estrategikoa definitzea izan da. Hori egin ostean, helburu estrategikoak definitu dira lau mailatan banatuta:

- **Baliabideak:** baliabide pertsonal eta materialen atalari dagokio.
- **Prozesuak:** gure lanaren antolaketarako abian jartzen ditugun sistemei eta kudeaketa-ereduari dagokio.
- **Erabiltzaileak:** gure misio eta bisioa lortzeko zer eskaini behar diogun erabiltzaile eta komunitateari.
- **Helburu “gakoak”:** misioari eta bisioari zuzenean lotuta doazen helburuak dira, baita alderdi ekonomikoari lotutakoak

MAPA ESTRATEGIKOA

Ondoko mapak jasotzen ditu datozen bi urteei begira maila desberdinetan (helburu-gakoak, erabiltzaileak, prozesuak eta baliabideak eta pertsonak) zehaztu ditugun helburuak. Horrekin batera, helburuen arteko kausa-efektu loturak adierazi ditugu.





Lankidetzak

EHU: EHUko udako ikastaroetan soziolinguistika-ren inguruko ondorengo ikastaroa antolatu dugu: *Euskara komunikatu? Nor-Nori-Nork*

KUTXA: Zabalegi finkan EKO GUNEA proiektua garatu asmo du KUTXAk, garapen iraunkorrari buruzko gune gisa. Gune honetan, besteak beste, hizkuntzen ekologia eta hizkuntzen garapen iraunkorra landu asmo du. Gune honen diseinu eta garapenerako aholkularitza eskaini diegu.

HABE liburutegia: proiektuetarako, erreferentzia bibliografikoak eskuratzeko eta liburutegiko funtsaren zabalpena egiteko lankidetzak jarraitu dugu.

Eusko Ikaskuntza: lantzen ari diren Auñamendi entziklopediaren eguneraketarako Soziolinguistika Klusterrak soziolinguistika ataleko edukiak eguneratzeko ardura bere gain hartu du.

ASMOZ Fundazioa: urtero bezala, HIZNET hizkuntza plangintzako graduondoko ikastaro laguntzaile izan gara.



2010ean sinaturiko lankidetzak hitzarmenak:

- **Munduko Hizkuntza Ondarearen EHUko UNESCO Katedra** (apirila)
- **LANGUNE** (maiatza)
- **Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)** (urria)
- **Mintzola Fundazioa** (abendua)





IKERKETA-ARLOA

- 1 **ARRUE** proiektua
(Eskola- giroko ikasleen hizkuntza- erabilera)
- 2 **ALDAHITZ** proiektua
(Hizkuntza-ohituren aldaketa)
- 3 **ERALAN** proiektua
(Lan-arloko hizkuntza-erabilera)
- 4 **Gazteen erabilera: Faktoreen azterketa eta GPS-a**
- 5 **Ahozko hizkuntza-erabilera neurtzeko metodoak: bilketa, bateratzea eta laginaren kalkulua**
- 6 **Euskal Herriko Kaleetako Hizkuntza-erabileraren VI. Neurketa**
- 7 **Euskararen Kale Erabileraren Neurketak herrietan**
- 8 **EUSKAINI** (Euskarazko eskaintzari buruzko neurketak)

EZAGUTZAREN DIBULGAZIOA

- 1 **Hizkuntza-ekologiaren inguruko aholkularitza (KUTXAren EKO GUNEA)**
- 2 **Formazio- eta aurkezpen -hitzaldiak:**
 - Hizkuntza-ekologia
 - Neurketa-metodoak
 - Gazteen erabilera
- 3 **BAT** Soziolinguistika aldizkaria
- 4 **Soziolinguistika Eskuliburua**
- 5 **III. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia**
- 6 **Euskara komunikatu? Nor-Nori-Nork,** Soziolinguistika ikastaroa EHUren udako ikastaroetan
- 7 **Hausnartu. III.** Soziolinguistika Sariak
- 8 **Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuen argitalpena**

KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

- 1 Euskara sustatzeko **komunikazio ekimenentzat Oinarrizko Gida-Lerroak**
- 2 **SOZIOLINGUISTIKAZ berripaper elektronikoa**
- 3 **[www. soziolinguistika.org](http://www.soziolinguistika.org) webgunea**
- 4 Interneteko sare sozialetako presentzia: **Twitter, Facebook**

Proiektuak IKERKETA-ARLOA

1

ARRUE proiektua ESKOLA-GIROKO IKASLEEN HIZKUNTZA-ERABILERA

Koordinatzaileak: Pablo Suberbiola
eta Asier Basurto
p.suberbiola@soziolinguistika.org
a.basurto@soziolinguistika.org

Arrue, EAEko haur eta gazteen eskola-giroko hizkuntza-erabilera ikertzeko sortutako proiektua da. Ikerketa honen helburua eskolako hizkuntza-erabileran zein aldaigai eragiten duten ikertzea da, edo, hobeto esateko, nolako lotura duen eskolako hizkuntza-erabilerak aztertzen diren beste aldagaiekin (adibidez: ikaslearen lehen hizkuntza, ikaslearen ahozko gaitasunaz, ikastetxearen zenbait ezaugarri...).

Proiektu hau 2004-2005 ikasturteaz geroztik dago martxan Soziolinguistika Klusterraren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko lankidetzaren bidez. 2010. urtean, hiru lan egin dira nagusiki:



- Oinarri teoriko-metodologikoen errebisioa eta Kataluniako ikerlariarekin alderaketa.
- LMH6ko ikasleen erabilera aztertzeke aplikazio informatiko bat sortzea.
- Arrueren metodologia egokitu, 2011ko datu jasoketa ISEI-IVEIren Ebaluazio Diagnostikoa probaren baitan egiteko (LMH4 eta DBH2).

Babeslea:



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Saila
(hitzarmena)

2

ALDAHITZ proiektua HIZKUNTZA-OHITUREN ALDAKETA

Koordinatzaileak: Pablo Suberbiola
p.suberbiola@soziolinguistika.org

Aldahitz 2010. urtean sortutako proiektua da, eta bere aztergai nagusia honako hau da: euskara ikasi duten langileek lankideekin gaztelaniatik euskarara egin dituzten ohitura-aldaketa-prozesuak, eta langile horiek euskara ikasteko jarraitu dituzten prozesuak. Proiektuak jarraipena ematen dio, neurri batean 2009an Klusterrak garatutako *Bikoteen hizkuntza-ohituren aldaketa* proiektuari. Aldahitz-en kasuan, ordea, azterketa lan munduan kokatu da, eta lantalde zabalagoa osatu da: Pello Jauregi zuzendari dela, bost erakundek parte hartu dute proiektu-taldean: AEK-Ahize (Nerea Ibarluzea), Elhuyar Aholkularitza (Agurtzane Loidi), Emun (Gurutze Mendizabal), Hernaniko Udala (Malores Etxeberria) eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (Jon Aizpurua). Horrez gain, aholkulari talde baten laguntza ere izan dugu.

Ikerketan zortzi (8) langileren kasuak lokalizatu eta aztertu dira: euskara ikasi, eta erabileran lankideekin aldaketa egin dutenak (eguneroko lan-harremanean, gaztelaniatik euskarara). Ikerketa modu kualitatiboan egin da, eta ekainetik abendura egin dira elkarriketak eta edukien azterketak. 2011ean jarraipena eman zaio proiektuari.

Babeslea:



Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza
Politikarako Sailburuordetza



Proiektuak IKERKETA-ARLOA

3

ERALAN2 proiektua LAN-ARLOKO HIZKUNTZA-ERABILERA

Koordinatzaileak: Denis Elortza
d.elortza@soziolinguistika.org
Oihana Lujanbio
oihana@soziolinguistika.org



2008-2010 epean garatu den EraLan2 proiektuaren helburua *hizkuntza lidergoa* ikertzea izan da eta, arlo teorikoa lantzeaz gain, hizkuntza normalizaziorako planak dituzten lan munduko hainbat erakunde publiko zein pribatutan hizkuntza lidergoaren aldagaia lantzeko interbentzioak garatu ditugu.

2010ean borobildu egin dugu aurrez egindako lan guztia. Izan ere, batetik, hizkuntza lidergoa aztergai izan duen jardunaldi jendetsua eta formatuz berritzailea antolatu dugu Mondragon Unibertsitatearen HUHEZI Fakultatean eta, bestetik, hizkuntza lidergoaren alde

teorikoa zein erakundeetan egindako interbentzioak jaso dituen argitalpena osatu dugu, Nekane Goikoetxeak gidatutako *EraLan2 ikerketa proiektua. Hizkuntza lidergoa aztergai* izenekoa.

Hizkuntza lidergoaren inguruko interbentzioak erakunde hauetan garatu ditugu: Bermeoko Udala, Fagor Ederlan, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia Gipuzkoa Kutxa, Berrizko Udala, JEZ Sistemas Ferroviarios eta Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Par-tzuergoa. Soziolinguistika Klusterraren webgunean eskura daiteke aipatu argitalpenaren bertsio digitala, baita jardunaldiaren bideo-grabazioa ere.

Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



4

GAZTEEN ERABILERA FAKTOREEN AZTERKETA ETA GPS-A

Koordinatzailea: Asier Basurto
a.basurto@soziolinguistika.org

Urteak daramatzate Soziolinguistika Klusterrak, Urtxintxa Eskolak eta Topagunea euskara elkarten federazioak elkarlanean gazteen hizkuntza erabileraren gaia jorrazten. Hainbat aditu, aritu eta gazterekin “Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa” aurrera eraman zen. 2010ean zehar azterketa hura hartzaile mota ezberdinen artean aurkeztu da eta bide askotatik zabaldu da, hala nola, Euskal Soziolinguistika Jardunaldian, Udaltop topaketetan, Eskola Hitzun Bila jardunaldian, Euskaltzaindiaren Jagon jardunaldian eta abar.



Egindako zabalpen lan horretaz gain, gazteentzat eta gazteekin harremanen dihardutenentzat erabilgarria izan dadin egokitutako tresna bat landu da. Hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreak kontuan hartu eta hauetan esku hartzeko gidak Erabileraren GPSa izena du. Liburuxka eta honekin batera banatuko den posterra interneten ere kontsulta daiteke.

Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Proiektuak IKERKETA-ARLOA

5

AHOZKO HIZKUNTZA-ERABILERA NEURTZEKO METODOAK: BILKETA, BATERATZEA ETA LAGINAREN KALKULUA

Koordinatzailea:
Asier Basurto

a.basurto@soziolinguistika.org

Ahozko hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzen esperientzia duten erakundeak dira Soziolinguistika Klusterra eta bere bazkideak. Horregatik, metodologia honen hobekuntza eta garapenerako ildo bat martxan jarri zen 2009an. 2010aren erdialde-ara arte iraun zuen lehen fasean, testuinguru ezberdinetan (kalean, lantokietan, ikastetxeetan...) egiten diren neurketei buruzko informazioa bildu izan da, arduradun izan diren eragileekin elkarlanean. Bildutakoaren ezaugarri metodologikoak aztertuta, neurketa mota bakoitza egiteko oinarritzko irizpideak bateratu eta finkatzeko. Horrez gain, ahozko erabilera behaketa bidez neurtzeko, neurketaren baldintzen arabera jaso beharreko datu-laginaren kalkulurako eredu matematikoa sortu da eta hau fintzeko egitasmoa ere abian jarri da.

Neurketa-metodoen garapenerako lan ildoan, Soziolinguistika Klusterraren bidelagun nagusiak Yosu Yurramendi eta Xabier Isasi irakasleak eta erabileraren neurketak egiten dituzten bere bazkideak dira: Elhuyar, Emun, Euskal Herriko Ikastolak, Artez...

Babeslea:



Koordinatzailea: Olatz Altuna
o.altuna@soziolinguistika.org

6

EUSKAL HERRIKO KALEETAKO HIZKUNTZA- ERABILERAREN VI. NEURKETA (PRESTAKETA)

Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketak 22 urteko ibilbide luzea du dagoeneko, 1989an lehenengo aldiz egin zenetik, lau edo bost urteren tartearekin errepikatu baita. 2011ean VI. edizioa burutuko du Soziolinguistika Klusterrak eta 2010ean hasiak gara, jada, prestaketa lanetan. "Zenbat erabiltzen da euskara kalean?" Galdera horri erantzutea da, bere horretan, Kale Neurketaren helburua. Ahozko erabileraz ari gara, edozein pertsonak edozein pertsonarekin komunikatzeko erabiltzen duenaz. Erabileraren argazki kuantifikatu bat jasotzen da horrela. "Kalean" erantsi diogu galderari bukaeran. Izan zitekeen, noski, eremu mugatuago batean, esate baterako, eskolan, enpresan, etxean... Baina honakoan kalea aukeratzen du, bere zentzurik zabalenean: herriko plazan, edo umeen parkean, edo tabernen eta denden ingurunean. Horiexek dira ikerketaren ezaugarri nagusiak. Horiex eta beste hau: Euskal Herri osoan eginga dako ikerketa da. Muga administratiboak gaindituta, Euskararen Erabileraren Kale-Neurketak Euskal Herri osora zabaltzen ditu behatzaileak, eta Euskal Herri osoko argazkia jasotzen du objektibo angeluhandi batez.

Esan bezala, 1989an ekin zitzaion molde honetako ikerketari. Aldi hartan Siadecok garatutako metodologiaz eta EKBren sostenguaz burutu zen neurketa. Hastapena zen, bide berritzailea, metodologia aitzindaria, beste inon egiten ez zena eta hemen nahiz atzerrian ikusmira handia piztu zuena. Gero, Soziolinguistika Institutuak hartu zuen lekukoa, harez geroztik Soziolinguistika Klusterraren ardura izan delarik. Erabiltako metodologiaren baliozkotasuna berretsi egin da edizioz edizio, eta oraingoan (VI. Neurketan) berebiziko hobekuntza egiteko moduan izan gara metodoa eta ikerketa bera sendotuz.

2011. urtean, beraz, Euskal Herriko VI. Kale Erabileraren Neurketa egingo da. E-maila 2012. urtean argitaratu emango du Soziolinguistika Klusterrak.

Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava




Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Proiektuak IKERKETA-ARLOA

7 EUSKARAREN KALE ERABILERAREN NEURKETAK HERRIETAN

Koordinatzailea: Olatz Altuna
o.altuna@soziolinguistika.org

Soziolinguistika Klusterrak urteak daramatza euskararen kale-erabileraren neurketak egiten herrietan. Udalek tokian tokiko errealitatea hobeto ezagutzearen neurketa bereziak egin nahi izaten dituzte, eta asko dira lau edo bost urteko maiztasunarekin erabileraren neurketak errepikatzen dituztenak, momentuko argazkia ez ezik erabileraren bilakaera ezagutzeko xedez. Hala, 2001 urteaz geroztik Soziolinguistika Klusterrak 55 udalerrietan egin ditu neurketa bereziak, eta erabilera datuak jaso ditu, besteak beste, auzoka eta adin-taldea.



8 EUSKAINI EUSKARAZKO ESKAINTZARI BURUZKO NEURKETAK

Koordinatzailea: Olatz Altuna
o.altuna@soziolinguistika.org

Euskaini, euskarazko eskaintzaren adierazlea, Kataluniako Consorci per a la Normalització Lingüística-ko teknikariek sorturiko *Ofercat* adierazlean oinarrituta SEI Elkartek prestaturiko egokitzapena da, geroztik Soziolinguistika Klusterrak bere egin duena. Gizartearen sektore ezberdinetan (administrazioan, ekonomian, komunikabideetan, etab.) jasotzen dugun hizkuntza-eskaintza du aztergai; hau da: herritar batek jasotzen duen hizkuntza-errealitatearen zein proportzio dagoen hizkuntza jakin batean (errotuluak, idazkiak, ahoko komunikazioa...)

Euskaini-ren bitartez, konplexua den errealitate bat (herri bateko hizkuntza-eskaintza) modu sinplean eta indize zehatzen bidez adierazi dezakegu, modu horretan bere bilakaera ere aztertzeo aukera izanik.

2010ean Hernaniko, Azpeitiko eta Arrasateko azterketak aurkeztu ditugu.



Proiektuak EZAGUTZAREN DIBULGAZIOA

Soziolinguistikaren inguruan garatutako ezagutzak hizkuntza normalkuntzari benetako bultzada eman diezaion beharrezkoa da ezagutza honen dibulgazioa behar bezala lantzea. Dibulgazio-lan hau egiteko bide desberdinak jorratu beharra ikusten dugu: aholkularitza zerbitzuak eskainiz, argitalpenak kalera-tzen eta formazioaren bidez.

1

HIZKUNTZA-EKOLOGIAREN INGURUKO AHOALKULARITZA KUTXAREN EKO GUNEA

Koordinatzailea:

Belen Uranga

b.uranga@soziolinguistika.org

Hizkuntza-ekologiaren eredua soziolinguistikaren arlo teorikoan eta normalizazio-prozesuetan ari direnen artean gero eta leku handiagoa hartzen ari den gaia da. Izan ere, XXI. mendeko erronka nagusien artean kokatzen da gizakiaren garapen iraunkor modura definitu den gaia. Esparru horretan kokatzen da garapen ekonomiko, sozial eta ingurumenekoa, eta baita ere, garapen kulturala. Testuinguru horretan hizkuntza-ekologiaren teoria eta praktika garatzen eta zabaltzen doan jakintza- eta praktika-esparrua da.

Gai horren inguruan Soziolinguistika Klusterra aholkularitza teknika eskaintzen ari zaio Gipuzkoa-Donostia Kutxa prestatzen ari den EKO GUNE proiektu handiari, bertan kokatuko baita Hizkuntzaren Ekologia gunea. Kutxa Ekogunea jarrera bat da, kontzientziazioetik ekintzatarara pasatzeko bokazioz jaio den ekimena, parke batek gorpuztuko duen proiektu bat. Bertan landuko diren gaiak honakoak dira: energia berriztagarriak, eragin-kortasun energetikoa, garraio jasagarria, natura, zaindu eta maitatu, konposta, uraren garbiketa naturala, nekazaritza ekologikoa, kontsumo jasagarria eta hizkuntzen ekologia.



Babeslea:



2

FORMAZIO- ETA AURKEZPEN-HITZALDIAK

Dibulgazioaren esparruan Klusterreko teknikariak eta kolaboratzaileek espreski eskaturiko formazio-hitzaldiak eskaini dituzte, batez ere, berariaz jorratzen ari garen gaien inguruan. 2010. urtean aipa daitezke *Hizkuntzaren ekologiaren* inguruan eskainitako hitzaldiak Gipuzkoa Donostia Kutzako EKOLIDERRAK egitasmoaren barruan, eta EMUN Hizkuntza-Zerbitzuak erakundeari formazio modura.

Ildo beretik, Elhuyar Aholkularitzak hala eskatuta, *Euskararen erabilera neurtzeko metodoak* gai hartuta formazio-saioa eskaini da.

Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketak ere merezi izan du 2010. urtean arreta berezia. Izan ere, urtean zehar hartzaile mota ezberdinen artean aurkeztu da, eta bide askotatik zabaldu da, hala nola, Euskal Soziolinguistika Jardunaldian, Udaltop topaketetan, Eskola Hitzun Bila jardunaldian, Euskaltzaindiaren Jagon jardunaldian eta abar.





Proiektuak EZAGUTZAREN DIBULGAZIOA

3

BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIA

Koordinatzailea: Belen Uranga
b.uranga@soziolinguistika.org

Euskararen berreskurapen- eta normalizazio-lanetan diharduten eragileak soziolinguistikan eta glotopolitikan jantztea da BAT Soziolinguistika aldizkariaren helburu nagusia. Horretarako Euskal Herriko nahiz atzerriko (bereziki Europako) ekarpen esanguratsuak biltzen ditu.

BAT aldizkariko argitalpen batzordeko kideak Iñaki Martinez de Luna, Esti Amorrortu, Inma Muñoa, Jone Miren Hernandez, Jean Baptiste Coyos, Lionel Joly, Maria-Jose Azurmendi eta Pablo Sotés dira. Urtean zehar 50 egiletik gora parte hartu dute gure lau zenbakietarako artikulua idazten, horien artean Euskal Herritik kanpokoak diren Colin H. Williams, Miquel Gros i Lladós, Ernest Querol eta Xosé Henrique Costas.

Bere sorreraz geroztik, 1990. urtetik aurrera, BAT aldizkariak urtero lau zenbaki eman ditu argitara, eta aurren, bere XX. urtebetetzean, ibilbide luze horretan egindakoari begirada bat emateko, egungo diagnosiari hurbiltzeko eta etorkizuneko erronken zantzuak lekutzen hasteko baliatu dugu. Helburu horrekin bi zenbaki monografiko kaleratu ditugu, 76 eta 77. zenbakiak. Horrela bada, 2010eko zenbakien gai monografikoak eta parte hartu duten egileak honakoak dira:

- **74 zenbakia:** *II. HAUSNARTU: Euskal Soziolinguistika Sariak.*
Artikulugileak: Dabid Anaut, Jose M^a Zendoia, Urtzi Barrenetxea, Edorta Bergua, Estepan Plazaola, David Izaga, Garbiñe Loiarde, Nekane Jauregi, Joxpi Irasrortza.
- **75 zenbakia:** *Euskararen Presentzia Unibertsitatean.*
Artikulugileak: Pablo Sotés, Jasone Cenoz, Battittu Coyos, Pilar Sagasta, Karmele Perez, Begoña Pedrosas, Eneritz Garro, Jon Irazusta, Ludger Mees, Carmen Perez-Vidal, Joseba Barandiarán, Pilar Kaltzada, Colin H. Williams, Maria-Jose Azurmendi.
- **76 zenbakia:** *BAT Aldizkariaren XX. Urteurrena.*
Artikulugileak: Belen Uranga, Maria-Jose Azurmendi, Iñaki Martinez de Luna, Patxi Baztarrika, Jean-Baptiste Coyos, Paula Kasares, J. Inazio Marko, Paul Bilbao, Joxe Manuel Odriozola.
- **77 zenbakia:** *BAT Aldizkariaren XX. Urteurrena.*
Artikulugileak: Belen Uranga, Imanol Esnaola, Mikel Zalbide, Miquel Gros i Lladós, Nekane Larrañaga, Igor Astibia, Esti Amorrortu, Ane Ortega, Ernest Querol, Xosé Henrique Costassw, Inazio Agirre, Joseba Intxausti.

Soziolinguistika Klusterrak BAT Soziolinguistika aldizkarian argitaratu diren artikulua (azken laurak izan ezik) Interneten jartzen ditu eskura helbide honetan:

<http://www.soziolinguistika.org/node/3>

Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Saila
Hizuntza Politikarako
Salburuordetza



Proiektuak EZAGUTZAREN DIBULGAZIOA

4 SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUA

Proiektuaren dibulgazioaren koordinatzailea: Denis Elortza
d.elortza@soziolinguistika.org

Soziolinguistikari buruzko eskuliburu bat euskaraz idaztea Soziolinguistika Klusterrak sortu zenetik izan duen amets eta erronka nagusietako bat izan da; Soziolinguistika Klusterrarena eta bera osatzen duten bazkide guztiena.

Eta amets hori 2010ean bete dugu. Argitaratu eta aurkeztu dugu gure Soziolinguistika Eskuliburua, euskaraz eta euskaratik sortua. Soziolinguistika Klusterraren inguruan 30etik gora aditu bildu dira eta soziolinguistikaren nazioarteko oinarritzko teoria eta ikerketak eta horiek Euskal Herrian izan duten garapena jaso dituzte eskuliburuan.

Euskararen normalizazioan lanean ari den edonorentzako tresna baliagarria da Soziolinguistika Eskuliburua, hizkuntza egoeraren diagnosi aberatsagoa egiteko oinarri eta euskara indartzeko politikak eta egitasmoak modu eraginkorragoan diseinatzeko lagungarri.

Eskuliburua 2010ean eman zen argitara, eta azpimarratzekoa da gainera Eusko Ikaskuntzarekin eginiko hitzarmenari esker, Soziolinguistika eskuliburuaren edukiak Auñamendi Entziklopedian jarri direla eskuragarri Interneten:

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee/sociolinguistica>

Proiektuaren babesleak:




Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Salia
Hizkuntza Politikarako
Salburuordetza



HIZKUNTZA BIZIAREN EUSKARRIAK (edo erabileran eragiten duten faktoreak)



6. irudia: hizkuntza biziaren euskarriak (Martínez de Luna, 2001).



Proiektuak< EZAGUTZAREN DIBULGAZIOA

5 III. EUSKAL SOZIOLOGIA JARDUNALDIA

Koordinatzailea: Belen Uranga
b.uranga@soziolinguistika.org

III. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia MIRAMON Zientziaren KutxaGunean burutu zen Soziolinguistika Klusterrak antolatuta. Jardunaldia hausnarketa teorikoan eta maila aplikatuan euskalgintzan ari direnei zuzenduta egon zen eta bertan elkartu ziren ehun bat lagun. Edizio honetan landutako gaia *Hizkuntzekiko jarrerak* izan zen.

Jardunaldiaren helburu nagusia euskal soziolinguistikaren arloan, gaur egun interes goreneko gaien inguruko ezagutzari eta lanari buruzko hausnarketa partekaturako eremuak sortzea da.

Jardunaldian bereziki landu zen *Euskararekiko jarretatik erabilerara* gaia aditu eta formatu desberdinetan: mahai-inguruak, tailerrak, hitzaldiak eta elkarriketen bitartez, iritzi, esperientzia, ikerketa eta erronkei buruz hausnartzeko aukera izan zen.

Jardunaldian hizlari edota kolaboratzaile moduan izan zirenen artean honakoak daude: Erramun Baxok, Iñaki Martinez de Luna, Pablo Sotés, Pello Jauregi, Jaime Altuna, Dabid Anaut, Esti Amorrortu, Ane Ortega, Onintza Irureta eta Juan Carlos Moreno Cabrera.

Jardunaldiko hitzaldien materiala eta bideoak Soziolinguistika Klusterreko webgunean ikus daitezke (<http://www.soziolinguistika.org/jardunaldia> atala) daude ikusgai.

Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako
Salburuzordetza



Proiektuak EZAGUTZAREN DIBULGAZIOA

6

EUSKARA KOMUNIKATU? NOR-NORI-NORK. SOZIOLINGUISTIKA IKASTAROA EHU-REN UDAKO IKASTAROETAN

Koordinatzailea: Belen Uranga
b.uranga@soziolinguistika.org

EUSKARA KOMUNIKATU? NOR-NORI-NORK ikastaroa antolatu zuen Soziolinguistika Klusterrak bigarren aldiz EHUko Udaiko ikastaroetan. Aurtengo honetan zuzendariak Pilar Kaltzada (innobasque) eta Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra) izan dira.

Ikastaroaren helburua euskara sustatzeko komunikazio-proiektuen eragina hobetzeko eta neurtzeko tresnak eskaintzea izan zen. Eta horregatik gai horien inguruan eztabaidatu zuten aditu eta bertan izan ziren partaide guztiak: Nola prestatu modu egokian euskara sustatzeko ekintza bat? Zer komunikatu nahi genuke? Norengana heldu nahi genuke? Eraginik izango al du?

Intuizioen arabera jokatu ordez, irizpide egokien bila aritu zen ikastaroa. Horretarako, komunikazioaren elementuak aztertu ziren, publiko hartzaile berriaren identifikaziorako lagungarriak diren elementuak identifikatzen saiatu ginen, diskurtso egokia eraikitzeko irizpideak ematen saiatu ginen eta irudien, balioen eta euskararekiko jarrera-aldaketak aztertu ziren. Gainera, egungo euskarri mota desberdinak aztertu ziren, teknologia berrien garrantzia azpimarratuz eta, azkenik, kanpainen eragina hobetzeko, egindakoaren ebaluazioaren beharra eta teknikak azalduko ziren.

Ikastaroan parte hartu zuten adituak: Pilar Kaltzada, Joseba Kamio, Joxerra Garzia, Iñaki Lurrebaso, Igor Calzada eta Belen Uranga izan ziren.

Soziolinguistika Klusterrak ikastaroko zuzeneko materiala eta bideoak eskaintzen ditu: <http://www.soziolinguistika.org/ehuikastaroa>



Proiektuak EZAGUTZAREN DIBULGAZIOA

7

HAUSNARTU. III. SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

Koordinatzailea: Belen Uranga
b.uranga@soziolinguistika.org

Hizkuntzaren berreskurapen bidean, argi dago ezagutza aplikatua lantzea ezinbestekoa dela. Baina, ezagutza aplikatu horiek oinarritzko teoria batzuetatik jaso behar du bere funtsa. Oinarritzko edo purua deritzon ikerketa eta hemendik atera litekeen ezagutza garatzea, beraz, behar-beharrezkoa zaigu. Honetarako, gune naturala unibertsitatea izan ohi da, eta horregatik, Soziolinguistika Klusterraren erronka da unibertsitateko irakasleak soziolinguistikaren ikerketa-lerro hauetara erakartzea.

HAUSNARTU Soziolinguistika Sarien III. edizioa antolatu zuen Soziolinguistika Klusterrak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin.

Asmoa da dagoeneko euskal soziolinguistikarekin harreman zuzena izan duten ikerlarien lana bultzatzea eta oraindik harremanik izan ez duten ikerlariak euskal soziolinguistikaren eremura biltzea. Horrela, soziolinguistikatik bertatik egindako garapen berriak ez ezik, beste adar zientifiko horien ekarpenak ere bultzatzea da sari hauen xedea. Modu horretan hizkuntzaren eta soziolinguistikaren inguruko ikerketen oinarri teorikoak zabaltu eta aberastuko dira.

2010eko saridunak hautatzeko epaimahai-kideak ondorengoak izan dira: Iñaki Martínez de Luna, EHUKo irakaslea eta BAT Soziolinguistika aldizkariaren argitalpen batzordekoa, Pello Jauregi, HUHEZIKo irakaslea, Estibaliz Alkorta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria eta Iván Igartua, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako koordinazio zuzendaria.

- Lehen saria (1.100 €): *Gazteak, musika eta euskara*. Luis Azpiazu Larrañaga.
- Bigarren saria (800 €): *Sugea dantzan: She's in fashion-etik Bilbao euskaraz-era*. Galder Unzu Etxabe.
- Hirugarren sari (550€): *Euskal soziolinguistika aplikatua: bilakaera metodologikoa eta teknikoa*. Patxi Juaristi Larrinaga.

Saritutako lan guztiak BAT Soziolinguistika aldizkariaren 78. zenbakian argitaratuko dira.

Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza



Proiektuak EZAGUTZAREN DIBULGAZIOA

8

EUSKARAREN NORMALIZAZIO KASU AURRERATUEN ARGITALPENA

Koordinatzailea: Denis Elortza
d.elortza@soziolinguistika.org

Ezagutzaren Clusterraren “Kudeaketa aurreratuko enpresak” koadernoak oinarritzat hartuta abiatutako proiektua da hau. Proiektu honen helburu nagusia euskararen normalizazioan emaitza arrakastatsuak izan dituzten erakundeen esperientziak eza-gutzero ematea da. Esperientzia hau formatu irakurterazean idatzita, erakunde horiek lortutako arrakastaren gakoei buruz gogoeta suspertu eta euskararen normalizazioan baliagarriak diren ikuspegi eta praktikak hedatu nahi dira enpresa-, uni-bertsitate- eta administrazio-arloan.

2010ean Lizarra Ikastola eta Txingudi Ikastolaren Kasuak argitaratu eta zabaltu ditu-gu. Horrez gain, GOIZPER Kooperatiba Elkartea eta ELKARGI Elkarrekiko Garan-tia Elkarteen Kasuak izan ditugu aztergai. Joxpi Irastortzak (Mondragon Uniber-tsitatea, Huhezi) zuzendu du proiektua, Oihana Lujanbiok idatzi ditu Kasuak eta Innobasqueko Javier Zarrabeitia izan dugu aholkulari.

Proiektuaren
babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Saria
Hizkuntza Politikarako
Salburuordetza




CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Euskara-gaitasunaren eta erabileraren datuak Donostian


Hizkuntza gaitasuna. Donostia, 2001 (%)




Hizkuntza gaitasunaren bilakaera. Donostia, 1986 >> 2001 (%)



Kale erabilera. Donostia, 2006 (%)



Euskararen kale erabileraren bilakaera. Udalerria 1989 >> 2006 (%)



Proiektuak< KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

1

EUSKARA SUSTATZEKO KOMUNIKAZIO- EKIMENENTZAT OINARRIZKO GIDA-LERROAK

Koordinatzailea:
Belen Uranga

b.uranga@soziolinguistika.org


Burura eramaten diren kanpainak ebaluatzeko bitarteko eta jakintza aldetik hutsu-neak nabaritu dira. Horrek, sarri, itsu-itsuan jokatzeko sentsazioa sortzen du, eta kanpaina horien kalitatea hobetzeko funtsezkoa den informazioa faltan sumatzen da. Beste modu batean esanda, adierazle-sistema edo -eredu bat eraikitzearen beharra detektatu da. Izan ere, hainbat bidetatik heldu da kezka hori Soziolinguistika Klusterrera, bereziki euskara-teknikari anitzen hitzetan eta egindako hainbat proposamenetan.

Proiektu honen helburua ondorengoia izan da: euskara sustatzeko komunikazio-kanpaina eta bestelako ekimenen eraginkortasuna hobetzea. Horretarako, lehenik, hurrenez hurren ikus-entzunezkoen ekoizpenean eta komunikazio-kanpainen diseinuan aritzen diren Digitalak eta Arista enpresen lankidetzarekin gaiaren inguruko ikastaroa antolatu zen.

Ondotik, 2010ean zehar, diziplina desberdinetako kideekin (udal-teknikariak, enpresetako komunikazio-arduradunak, komunikazioan adituak...) lan-taldea eratuko dugu euskara sustatzeko komunikazio-kanpainak ebaluatzeko adierazle-sistema osatze aldera. Azkenik Komunikazio-egitasmoak garatzeko oinarrizko gida bat egin dugu euskal eragileen artean komunikazio-egitasmoak egitearen metodoaz, eraginaren neurtzeaz eta hobetzeko moduez. Dokumentu honek bi parte ditu. Lehenengoan, *Euskararen komunikazio-estrategiaz* sarrera labur bat egin nahi izan dugu, eta dokumentuaren bigarren partean propio prestaturiko *Komunikazio-egitasmoak garatzeko oinarrizko gida-lerroak*.

Hitz hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu euren aholkuengatik gure lagun guztiei: Joxe Luix Agirretxe, Kike Amonarriz, Hasier Etxeberria, Iñigo Fernandez, Joxerra Garzia, Joseba Kamio, Susana Martinez, Iker Estala eta Oier San Martin.

Babeslea:



Proiektuak< KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

2

SOZIOLINGUISTIKAZ berripaper elektronikoa

Koordinatzailea: Asier Basurto
a.basurto@soziolinguistika.org

Komunikazio-molde berrien sorrerak eta hazkundeak eragindako aldaketek leku berezia dute gaur egungo gizartean. Mugarik gabeko harremanak eta komunikazio masiborako aukeren aurrean, gizabanakoek eta komunitateek testuinguru honetan egokitze ahalegina egin behar dute. Hizkuntza gutxituen komunitateen ikuspegitik ere, egungo baldintzetara egokitzea erronka nagusietako bat da. Horregatik, gai honi garrantzia eman eta ikuspegi soziolinguistikotik landu beharra ikusi dugu.

SOZIOLINGUISTIKAZ berripaper elektronikoa euskararen normalizazioarekin loturiko edota soziolinguistika-arloko, argitalpen, ikerketa, ekimen eta abarren inguruko informazioa zabaltzeko sorturiko orri elektronikoa da. Soziolinguistika Klusterrak atondu eta doan zabaltzen du orain artean, web bidez eta posta elektroniko mezuz bidez, arlo honetan interesa duten guztientzat.

Soziolinguistikaz berripapera euskarri elektronikoan soilik banatzen da, eta formatu laburrean, kasu bakoitzean informazio zabalagoa eskuratzeko dagokion helbide elektronikoaren lotura bertan jarrit.

Soziolinguistikaz berripapera bi hilabete behingo maiztasunez 800 bat helbidetara zabaltzen da. Tartean dira udaletako euskara zerbitzuak, euskara-elkarteak, erakunde ezberdinetako euskara-teknikariak, irakaskuntza-arloan normalkuntza plangintzetan dihardutenak, unibertsitateko irakasleak, euskaltegiak...

Proiektuak < KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

3

www.soziolinguistika.org webgunea

Koordinatzailea: Denis Elortza
d.elortza@soziolinguistika.org

Klusterraren misioan bertan ageri da soziolinguistika-ezagutza zabaltzeko eginbeharra eta gaur gaurkoz gure webgunea da soziolinguistikaren inguruko informazioa hedatzeko daukagun tresnarik eraginkorrena.

Soziolinguistika Klusterraren webguneak bi lerro nagusi ditu: bata, Klusterreko kideei eta proiektuetan parte hartzen ari diren aditu eta bazkideei begirako, proiektuen garapenean sortutako informazioa partekatzerako bideratutakoa; bestea, publiko zabalarari eskaintzen zaion informazio bilduma, batez ere proiektuen emaitzetan oinarritutakoa.

2010ean gure webguneak erreferentzialtasunean jauzi handia egin du, jasotako bisitetan gora egin du eta hainbat gailur-momentu izan ditu:

- EHUko udako ikastaroen Twitter bidezko jarraipena egin zuten hainbat parte-hartzailek eta jardun horren isla (Coveritlive) jaso genuen gure webgunean.
- EraLan2ren jardunaldi irekia streaming bidez eman genuen gure webgunean, Mondragon Unibertsitatearen MU Telebistarekiko lankidetzan eta jarraipen handia izan zuen.
- Gazteen erabilerari buruzko proiektuaren emaitzak webgunean argitaratzeak internauta ugari erakarri zuen.
- Gure jardunaldi eta ikastaroen inguruan ekitaldiaren aurretik eta ondoren jarri dugun jakingarriek harrera oso ona izan dute: hizlariari buruzko dossierrak, argazki bildumak, zintzilikatutako aurkezpenak, kronikak...
- Gure misioari jarraiki, proiektu guztien emaitzak jasotzen dituzten txosten eta argitalpen digitalak zintzilikatu ditugu gure webgunean.

Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza



Proiektuak< KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

4

INTERNETEKO SARE SOZIALETAKO PRESENTZIA: TWITTER, FACEBOOK

Koordinatzailea: Denis Elortza
d.elortza@soziolinguistika.org

2010ean Klusterrak sare sozialetarako jauzia eman du. Facebook eta Twitter sare sozialetan profilak jarri ditu martxan eta webguneko albistegiarekiko balio erantsia ekarri dio horrek Klusterraren orain arteko komunikazio gaitasunari.

Webguneko gure albisteak hartzaille interesdunei zuzenean bidaltzeko aukera eman digute sare sozialek eta, horrenbestez, gure jardunaren kanporako irisgarritasunak hobekuntza nabarmena izan du. Gainera, aipatutako sare sozial horietako gure jarraitzaileen feedback zuzena etengabe jasotzeko balio izan digu eta horrek askotariko eragileekiko lankidetza estuagorako bideak zabaldu ditu.


Era berean, gure intereseko erakunde zein norbanakoen jarraipena egiten dugu Facebook eta Twitter bidez eta gure gertuko (bazkideak, kolaboratzaileak...) bozgorailu rola ere hartu dugu.





Soziolinguistika-arloko sarea eratzen

Soziolinguistika Klusterra sortu zenean eginiko gogoetetan nabarmen ageri zen soziolinguistikaren inguruan lanean ibili bazebiltzala hainbat erakunde eta norbanako. Klusterraren baitan ikusten genituen egitekoen artean, horiek guztiak soziolinguistika ezagutza garatzeko proiektuetan egituratzea zegoen. Horiek guztiak soziolinguistika-arloko sarea eratzen joatea, hain zuzen. Bide honetan 2010ean ere zenbait urrats eman dira. Horren erakusle, urtean zehar Klusterrarekin harreman-mota bat edo beste izan dutenen zerrenda doakizue jarraian:



	IZEN DEITURAK		ERAKUNDEA	HARREMAN MOTA	PROIEKTUA
1	Joxe Luix	Agirretxe	Euskara teknikaria	• Aholkularia • Proiektu-taldeko kide • Proiektu-taldeko kide	• Komunikazio proiektua • Soziolinguistika Eskuliburua • Aldahitz proiektua
2	Jasone	Aldekoa	Zaratamoko Berritzegunea	Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
3	Estibaliz	Alkorta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Proiektu-taldeko kide	Hausnartu proiektua
4	Jaime	Altuna	Gipuzkoako Urtxintxa Eskola	• Proiektu-taldeko kide • Hizlaria	• Erabileraren GPSa • III. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia
5	Eider	Alustiza	Emun Kooperatiba Elkartea	Proiektu-taldeko kide	Soziolinguistika Eskuliburua
6	Maite	Alvarez de Zarate	Bermeoko Udala	Proiektu-taldeko kide	ERALAN proiektua
7	Kike	Amonarriz	Soziolinguista	Aholkularia	Komunikazio proiektua
8	Estibalitz	Amorrortu	Deustuko Unibertsitatea. Filologia Saila	• Proiektu-taldeko kide • Hizlaria • Aholkularia	• Bat Soziolinguistika Aldizkaria • III. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia • Soziolinguistika Eskuliburua
9	Joxean	Amundarain	Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria	• Proiektu-taldeko kide • Aholkularia	• ERALAN proiektua • Soziolinguistika Eskuliburua
10	Dabid	Anaut	Euskara teknikaria	Hizlaria	III. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia
11	Amaia	Antero	Topagunea. Euskara Elkarteen Federazioa	Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
12	Pello	Aranburu	Hezkuntza Saila. IRALE	Proiektu-taldeko kide	ARRUE proiektua
13	Julen	Arexolaleiba	HUHEZI	Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
14	Helene	Armentia	Elhuyar Aholkularitza	• Proiektu-taldeko kide • Aholkularia	• ERALAN proiektua • Normalizazio Kasu Aurreratuak

IZEN DEITURAK			ERAKUNDEA	HARREMAN MOTA	PROIEKTUA
15	Arrate	Arozena	Elhuyar Aholkularitza	Aholkularia	Ahozko erabilera neurtzeko metodoen garapena
16	Juanjo	Arrospide	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Aholkularia	Aldahitz proiektua ERALAN proiektua
17	Iñaki	Artola	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua, Nolega	Proiektu-taldeko kide	ARRUE proiektua
18	Imanol	Azkue	Elhuyar Aholkularitza	Proiektu-taldeko kide	Soziolinguistika Eskuliburua
19	Maria-Jose	Azurmendi	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Proiektu-taldeko kide	Bat Soziolinguistika Aldizkaria
20	Erramun	Baxok	soziolinguista	Hizlaria	III. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia
21	Ruben	Beitia	Emun Kooperatiba Elkartea	Hizlaria	Eralan proiektua. Jardunaldia
22	Jose Mari	Berasategi	Arabako Foru Aldundia	Proiektu-taldeko kide	ERALAN proiektua
23	Vanessa	Bretxa	Xarxa Cruscat	Aholkularia	ARRUE proiektua
24	Battittu	Coyos	René Descartes Unibertsitatea	• Proiektu-taldeko kide • Idazlea	• Bat Soziolinguistika Aldizkaria • Soziolinguistika Eskuliburua
25	Arrate	Egaña	ISEI-IVEI	Proiektu-taldeko kide	ARRUE proiektua
26	Iñaki	Eizmendi	Ebete	Idazlea	Erabileraren GPSa
27	Gotzone	Elu	Hezkuntza Saila. IRALE	Proiektu-taldeko kide	ARRUE proiektua
28	Irantzu	Epelde	Iker Ikerketa Zentroa	Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
29	Xabier	Erize	Nafarroako Kutxa (CAN)	Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
30	Aritz	Escandon	Kultur Kabia Zerbitzuak	Proiektu Taldeko kide	Nerabeak, interneteko sare sozialak eta hizkuntza erabilera
31	Iker	Estala	Arista Komunikazioa	Aholkularia	Komunikazio proiektua
32	Urrate	Etxaburu	Emun Kooperatiba Elkartea	Aholkularia	Normalizazio Kasu Aurreratuak
33	Juanito	Etxeberria	EHU-UPV. Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi-Metodoen Saila	Aholkularia	ARRUE proiektua
34	Malores	Etxeberria	Hernaniko Udala	Proiektu-taldeko kide	Aldahitz proiektua
35	Iñigo	Fernandez	Publis	Aholkularia	Komunikazio proiektua
36	Aitziber	Gabikaetxebarria	Bermeoko Udala	Proiektu-taldeko kide	ERALAN proiektua
37	Iñaki	Garcia	HUHEZI	Aholkularia	Aldahitz proiektua
38	Joxerra	Gartzia	EHUko irakaslea	Aholkularia	Komunikazio proiektua Euskara Komunikatu? Nor-Nori-Nork EHUkoikastaroa

IZEN DEITURAK			ERAKUNDEA	HARREMAN MOTA	PROIEKTUA
39	Maider	Gaztaka	Artez Aholkularitza	Proiektu-taldeko kide	ERALAN proiektua
40	Luisana	Ginea	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua	Proiektu-taldeko kide	ARRUE proiektua
41	Nekane	Goikoetxea	HUHEZI	Zuzendaria	ERALAN proiektua
42	Haritz	Goikoetxea	Emun Kooperatiba Elkartea	Aholkularia	Ahozko erabilera neurtzeko metodoen garapena
43	Daniel	Hermosilla	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Aholkularia	ERALAN proiektua
44	Jone Miren	Hernández	EHU-UPV. Antropologia Saila	• Proiektu-taldeko kide • Idazlea	• Bat Soziolinguistika Aldizkaria • Soziolinguistika Eskuliburua
45	Nerea	Ibarluzea	Ahize – AEK	Proiektu-taldeko kide	Aldahitz proiektua
46	Iván	Igartua	Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza-Politikarako Sailburuordetza	Proiektu-taldeko kide	Hausnartu proiektua
47	Felipe	Iñarra	Elhuyar Aholkularitza	Proiektuko kide	Eralan proiektua
48	Joxpi	Irastortza	Mondragon Unibertsitatea	Zuzendaria	Normalizazio Kasu Aurreratuak
49	Mikel	Irizar	Gipuzkoa Donostia Kutxa	Proiektu-taldeko kide	ERALAN proiektua
50	Abel	Irizar	Emun Kooperatiba Elkartea	Aholkularia	Normalizazio Kasu Aurreratuak
51	Xabier	Isasi	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Proiektu-taldeko kide	Euskal Herriko Kale Neurketa Ahozko erabilera neurtzeko metodoen garapena
52	Iñaki	Iurrebaso		• Aholkularia • Hizlaria • Proiektu-taldeko kide	• Komunikazio proiektua • Euskara Komunikatu? Nor-Nori-Nork EHUkoikastaroa • Euskal Herriko Kale Neurketa
53	Santos	Izagirre	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua	Proiektu-taldeko kide	ARRUE proiektua
54	Pello	Jauregi	HUHEZI	• Zuzendaria • Aholkularia	• Aldahitz proiektua • Hausnartu proiektua
55	Lionel	Joly	Euskaltzaindia	• Proiektu-taldeko kide • Idazlea	• Bat Soziolinguistika Aldizkaria • Soziolinguistika Eskuliburua
56	Patxi	Juaristi	Euskaltzaindia	Aholkularia	Aldahitz proiektua
57	Pilar	Kaltzada	Innobasque-ko komunikazioa zuzendaria	Zuzendaria	Komunikazio proiektua Euskara Komunikatu? Nor-Nori-Nork EHUkoikastaroa
58	Joseba	Kamio	Harman	• Aholkularia • Hizlaria	• Komunikazio proiektua • Euskara Komunikatu? Nor-Nori-Nork EHUkoikastaroa
59	Paula	Kasares	Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Proiektu-taldeko kide	Soziolinguistika Eskuliburua

IZEN DEITURAK			ERAKUNDEA	HARREMAN MOTA	PROIEKTUA
60	Jokin	Larrañaga	Arabako Foru Aldundia	Proiektu-taldeko kide	ERALAN proiektua
61	Imanol	Larrea	Emun Kooperatiba Elkartea	Idazlea	Soziolinguistika Eskuliburua
62	Agurtzane	Loidi	Elhuyar Aholkularitza	Proiektu-taldeko kide	Aldahitz proiektua
63	Oihana	Lujanbio	Soziolinguistika Klusterra	idazle	Normalizazio Kasu Aurreratuak
64	Susana	Martinez	Aztiker	Aholkularia	Komunikazio proiektua
65	Iñaki	Martínez de Luna	Eusko Ikaskuntza	• Proiektu-zuzendaria • Proiektu-taldeko kide • Proiektu-taldeko kide • Hizlaria • Aholkularia • Proiektu-taldeko kide	• ARRUE proiektua • Bat Soziolinguistika Aldizkaria • Hausnartu proiektua • III. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia • Soziolinguistika Eskuliburua • Euskal Herriko Kale Neurketa
66	Pere	Mayans	Departament d'Educació. Generalitat de Catalunya		Aholkularia ARRUE proiektua
67	Gurutze	Mendizabal	Emun Kooperatiba Elkartea	Proiektu-taldeko kide	Aldahitz proiektua
68	Imanol	Miner	Gipuzkoa Donostia Kutxa	Proiektu-taldeko kide	ERALAN proiektua
69	Juan Carlos Moreno	Cabrera	Madrilgo Unibertsitate Autonomoa	Hizlaria	III. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia
70	Alex	Mungia	HABE	Aholkularia	Aldahitz proiektua
71	Inma	Muñoz	Gipuzkoako Ikastolen Elkartea	• Proiektu-taldeko kide • Aholkularia	• Bat Soziolinguistika Aldizkaria • Soziolinguistika Eskuliburua
72	Inhar	Mutiozabal	Arista Komunikazio enpresa	Hizlaria	Komunikazio proiektua
73	Itxaso	Olaizola	Kutxaren EKO GUNEA	Proiektu-taldeko kide	Hizkuntza-ekologia proiektua
74	Olatz	Olaso	Emun Kooperatiba Elkartea	Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
75	Kakun	Orbegozo	Kutxaren EKO GUNEA	Proiektu-taldeko kide	Hizkuntza-ekologia proiektua
76	Aizpea	Otaegi	Elhuyar Aholkularitza	Aholkularia	Soziolinguistika Eskuliburua
77	Antton	Peñalba	IRALE	Proiektu-taldeko kide	ARRUE proiektua
78	Sonia	Perez	Euskara Elkarleen Topagunea	Proiektu-taldeko kide	Erabileraren GPSa
79	Ernest	Querol	UOC	Aholkularia	ARRUE proiektua
80	Rosa	Ramos	NETELE	• Aholkularia • Proiektu-taldeko kide	• Soziolinguistika Eskuliburua • Euskal Herriko Kale Neurketa
81	Oier	San Martín	Digitalak	Aholkularia	Komunikazio proiektua
82	Natxo	Sorolla	Xarxa Cruscat	Aholkularia	ARRUE proiektua
83	Pablo	Sotés	Nafarroako Unibertsitate Publikoa	• Proiektu-taldeko kide • Hizlaria	• Bat Soziolinguistika Aldizkaria • III. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia
84	Izaro	Ugalde	Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria	Proiektu-taldeko kide	ERALAN proiektua

IZEN DEITURAK			ERAKUNDEA	HARREMAN MOTA	PROIEKTUA
85	Mikel	Urdangarin	Ahize – AEK	Proiektu-taldeko kide	ERALAN proiektua
86	Loren	V. Martinez Bermúdez	Hizkuntza irakaslea	Idazlea	Soziolinguistika Eskuliburua
87	Xavier	Vila i Moreno	UB	Aholkularia	ARRUE proiektua
88	Yosu	Yurramendi	EHU-UPV. Konputazio Zientziak eta Adimen Artifiziala Saila	Aholkulari	Euskal Herriko Kale Neurketa Ahozko erabilera neurtzeko metodoen garapena
89	Mikel	Zalbide	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua	• Proiektu-taldeko kide • Aholkularia	• ARRUE proiektua • Soziolinguistika Eskuliburua
90	Javier	Zarrabeitia	Innobasque	Aholkularia	Normalizazio Kasu Aurreratuak
91	Arkaitz	Zarraga	“Begoñako Andra Mari”, Irakasleen Unibertsitate Eskola	Proiektu-taldeko kide	Soziolinguistika Eskuliburua
92	Elias	Zumalde	Emun Kooperatiba Elkarte	Proiektu-taldeko kide	ERALAN proiektua

Izan zaitez Soziolinguistika Klusterreko bazkide!!!



Bazkide izatearen onurak

- ESPARRU TEORIKOA EDOTA APLIKATUA LANTZEN DUTEN ERAGILEEKIN ELKARLANEAN ARITZEKO AUKERA IZATEA.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN INGURUAN BILDUTAKO ERAKUNDE ETA ADITU SAREAZ BALIATZEKO AUKERA IZATEA.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN BIDEZ, NORBERAK BERE KABUZ LANDU EZINGO LITUZKEEN PROIEKTUAK LANTZEA ETA HORIEN GARAPENEAN PARTE HARTZEA.
- SOZIOLINGUISTIKAREN INGURUKO INFORMAZIO ETA FORMAZIO GAURKOTUA JASOTZEA.
- ERAGILEAK EGITURATUTA EGOTETIK SOR DAITEKEEN EMAITZAK JASOTZEA.
- SOZIOLINGUISTIKA EZAGUTZAREN GARAPENAREN BIDETIK, ERAKUNDEA BERA LANTZEN ARI DEN EUSKARAREN BERRESKURAPEN PROZESUA ERAGINKORTZEA.

Bazkide Sustatzailea (Erakundeak)

Zuzendaritza Batzordeko kide izateko eskubidea.

Klusterrak garatu beharreko proiektuetan parte hartzeko lehentasuna.

Proiektuetan parte hartzeagatik ordain ekonomikoa ere jasotzeko aukera.

Klusterraren jardunetik eta proiektuetatik sortzen den informazio guztia eskura izateko aukera webguneko intranet bidez zein beste iturrien bitartez.

Soziolinguistika Klusterrak bazkideari eman diezazkion zerbitzuetan (hitzaldiak, prestakuntza saioak eta bestelako enkarguak) prezio bereziak.

Klusterrak antolatutako ekitaldi publikoetan (proiektuekin lotutako jardunaldi teknikoak, EHUko udako ikastaroak, Soziolinguistika Jardunaldiak...) prezio bereziak.

Soziolinguistika Klusterrak argitaratutako liburu eta bestelako materiala erosteko prezio bereziak.

Urteko kuota: 1.575 €

Bazkide Erabiltzaileak (Erakundeak eta norbanakoak)

Klusterrak garatzen dituen proiektu zehatzetan parte hartzeko aukera.

Bazkide erabiltzaile guztien artean ordezkari bat egongo da Zuzendaritza Batzordean.

Klusterreko (erakundeari buruzkoa) informazio zuzena jasoko dute.

Klusterrak antolatutako ekitaldi publikoetan (proiektuekin lotutako jardunaldi teknikoak, EHUko udako ikastaroak, Soziolinguistika Jardunaldiak...) izena emateko lehentasuna izango dute.

Prezio bereziak izango dituzte Soziolinguistika Klusterrak argitaratutako liburu eta bestelako materiala erosteko.

ERAKUNDEAK. Urteko kuota: 262 €
NORBANAKOAK. Urteko kuota: 65 €